

TRAFIKOA ARAUTZEKO ORDENANTZA

2002ko otsailaren 27ko 25. NAOn argitaratua

1. artikulua. Ordenantza hau, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna onesten duen martxoaren 2ko 339/90 Errege Dekretu Legegileak xedatutakoaren osagarri da, eta herriko bide publiko guztietan aplikatzen ahalko da.

Seinaleztapena

2. art. 1. Manuzko seinaleztapena ezarriko da bereziki, udalerriko bide-sarearen tarte konkretu batzuetan, edo orokorrean, herri osoan, azken kasu honetan seinaleak herriko sarrera guztietan paratuko direlarik.

2.2. Zirkulazio murriztuko eremuaren sarreran diren seinaleek, oro har, alde horietako perimetro osoaren barrenean dute indarra.

2.3. Udaltzainen seinaleek beste edozein seinale baino indar haundiagoa izanen dute.

3. art. 1. Ezin da seinale manuzkorik ez informatiborik paratu aldez aurretik udal baimenik izan gabe.

3.2. Paratzen ahalko diren seinale informatibo bakarrak, udal agintaritzaren iritzian, benetako interes orokorra dutenak dira.

3.3. Debekatuta dago seinaleen gainean edo alboetan publizitatea paratzea.

3.4. Debekatuta dago erabiltzaileei semaforoak edo seinaleak behar bezala ikustea oztopatu edo haien arreta galaraz dezaketen panfleto, kartel, iragarki edo nolanhiko mezuak paratzea.

4. art. 1. Udalak, behar bezala baimendu gabe edo indarrean dauden arauak betetzen ez dituzten seinaleak, berehala erretiratuko ditu.

Udaltzainen jarduketa bereziak

5. art. Udaltzainek, segurtasuna eta ordena publikoa zaindu beharrez, edota arin zirkulatzeko, batzuetan aldatzen ahalko dute zenbait lekutako antolamendua, leku horietan jendearen edo ibilgailuen kontzentrazio handiak suertatzen direnean, eta orobat larrialdiren bat gertatzen denean. Horretarako, behin-behinekoz jartzen edo kentzen ahalko dira behar diren seinaleak, baita aurreneurriak hartu ere.

Oztopoak bide publikoan

6. art. 1. Debekaturik dago oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa eragotz dezakeen edozein oztopo edo gauza bide publikoan paratzea.

6.2. Aurrekoa hala izanik ere, behar bezala justifikatutako arrazoiak direnean, baimentzen ahalko da bide publikoa aldi baterako okupatzea zenbait lekutan, baldin okupazioak inolako arriskurik sortzen ez badu eta, trafikoari begira, ahal den nahasmendurik ttikiena gertatzen bada.

7. art. Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa eragoz dezakeen edozein oztopok behar bezala seinaleztaturik egon beharko du.

8. art. a) Udal agintaritzak oztopoak erretiratzeko ahalko ditu ondoko kasu hauetan:

1. Bideen erabiltzaileendako arriskutsuak badira.

2. Behar den baimenik erdietsi ez bada.

3. Behar den baimena erdietsi bada.

4. Baimendutako epea amaitu bada edo baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira.

b) Oztopoak erretiratzeagatik, baita haiendako seinale bereziak paratzeagatik ere, sortutako gastuak interesatuaren kontura izanen dira, hirugarren kasua kenduta.

Aparkamendua

9. art. Ibilgailuak aparkatzeko arau hauek begiratu behar dira:

9.1. Ibilgailuak ilaran aparka daitezke, hau da, espaloiarekiko paraleloan; baterian, hots, espaloiarekiko perpendikularrean eta erdibaterian, zeharka.

9.2. Aparkatzerakoan, ibilgailuak hurbildu ahala hurbilduko zaizkio espaloiari, tarte txiki bat utziko bada ere galtzadako puska hori garbitu ahal izateko.

10. art. Guztiz debekatua dago baldintza hauetan aparkatzea:

10.1. Behar den seinaleak debekatzen duen tokian.

10.2. Zirkulazioa tratatzen edo oztopatzen den tokietan.

10.3. Beste gidariak erregelamenduaren aurkako maniobrak egitera behartzen direnean.

10.4. Bigarren lerroan, lehenbiziko lerroan ibilgailua nahiz edukiontzia dagoenean, baita beste zeren bat edo babeseko beste elementuren bat dagoenean ere.

10.5. Galtzadaren zabaleraetik ibilgailu-lerro bat pasatzea ezinezkoa egiten denean.

10.6. Kale-kantoietan, beste ibilgailuren bati biratzea eragozten edo tratatzen zaionean.

10.7. Erregelamenduaren arabera aparkatutako beste ibilgailuei aterabidea oztopatzen zaienean.

10.8. Galtzadan, oinezkoen pasabidetako diren eremuetan.

10.9. Aldi batez jarduera baimenduek okupatu beharreko eremuetan, eta konpondu, seinaleztatu edo garbitu behar diren tokietan. Kasu horietan debekua behar bezala eta nahikoa garaiz seinaleztaturik egonen da.

10.10. Ibilgailu motorduna ez den beste edozein gailu.

Ibilgailuak bide publikotik kentzea

11. art. 1. Ibilgailua, osoki nahiz partez, baimenik gabe horrela aparkaturik dagoenean: seinaleztatutako leku debekatuan edo espaloi gainean, nasan, babestokian, pasealekuan, kontuz ibiltzeko aldean edo zoladura gaineko zerrenda aldean.

11.2. Eraikin bateko sarrera osorik nahiz zati bat oztopatzen duenean.

11.3. Pasabidea duen eraikin batean, baimendutako ordutegiaren barnean, sarrera-irteerak oztopatzen dituzenean.

12. art. Aurreikusitako salbuespenak galarazi gabe, ibilgailua kentzeagatik eta udal altxatokian edukitzeagatik sortutako gastuak titularraren kontura izanen dira, eta hark ordaindu beharko ditu edo ordainketa ziurtatuko du ibilgailua berreskuratzeko baldintza gisa, bidezko diren errekursoak jartzeko eskubidea baztertzeko. Ibilgailuak edukitzeagatik, prezioa hogeita hamar Euro sei zentimo (60,06 Euro) izanen da hilean edo horren zatikian".

13. art. Ibilgailua kentzea bertan behera utziko da baldin eta gidaria agertzen bada ibilgailua estekatu eta garabia abiatzen hasi baino lehen eta behar diren neurriak hartzen baditu kotxea lehen zegoen egoera okerretik ateratzeko.

Ibilgailu abandonatuak

14. art. Ibilgailu bat abandonatutzat har daiteke ondoko inguruabar bat suertatzen denean:

1. Bideko toki berean hamabost egun baino gehiago aparkatuta baldin badago.

2. Halako hondaketak baditu, non abandonatua eta/edo arriskua sortzeko moduan dagoela antzeman baitaiteke.

15. art. 1. Ibilgailu abandonatuak kendu eta Udal Altxatokira eramanez dituzte. Berehalaxe titularra nor den zehazteko izapideak egiten hasiko dira eta jakinarazpenetik hilabeteko epearen barnean ibilgailua eraman dezala aginduko diote.

15.2. Ibilgailuak eremu publikotik kentzea:

Ibilgailua kentzeko kostua haren titularrari ordainaraziko zaio (garabi zerbitzua, eta abar) eta tasa bat ordaindu beharko du kudeaketa administratiboagatik, aurreko kostuaren zenbatekoaren % 20ko, hain zuzen.

2012ko urtarrilaren 24ko 16. NAOn argitaratua

15.3. Jabeak ibilgailua eramateari uko eginen balio, Udalak ibilgailua besterentzeari ekinen lioke sortutako gastuak ordaintzeko.

Neurri bereziak

16. art. Inguruabar bereziek hala eskatzen dutenean trafikoa antolatzeko behar diren neurriak hartzen ahal dira, ibilgailuen zirkulazioa debekatuz nahiz murriztuz, edo hiriko alderdi bateko sarrerak beste leku batera desbideratuz, baita aparkalekuak berrantolatuz ere.

Garraio publikoaren geralekuak

17. art. 1. Udal Administrazioak zehaztuko du taxien eta garraio publiko nahiz eskolakoaren geralekuak non izanen diren.

Zamalanak

18. art. Zamalanak behar den arretaz burutuko dira ahalik eta alamen gutxien ematearren, eta erabilitako lekua garbi utzi beharko da.

19. art. Merkataritzako gaien zamalanak espaloitik gertuen dagoen aldetik burutuko dira, eta behar diren baliabideak erabiliko, lana ahalik eta lasterren egitearren eta oinezkoen zein ibilgailuen zirkulazioa ez oztopatzen saiatuz.

20. art. Alkatetzak zamalanetarako toki erreserbatuak zehatz ditzake, zeinetan aplikatuko baita ordutegi mugatuko aparkaldien araubide orokorra. Hala ere, eta kontutan izanik egoera, erreserbatutako beste toki batzuekiko hurbiltasuna edo erabileraren maiztasuna bezalako inguruabarrak, aipatu erregimen orokorrean aldaketak egin daitezke.

Pasabideak

21. art. Udalak baimena emanen du garaje, finka eta higiezinetakako sarbideetarako behar diren erreserbak egiteko bide publikoan. Erreserba horiek behar bezala seinaleztatuak egon beharko dute.

Edukiontzia

22. art. 1. Altzariak edo etxeko tresnak, eta berebat obra eta etxeko hondakinak biltzeko edukiontzia, udal organo eskudunak erabakita, bide publikoko puntu jakin batzuetan paratu beharko dira.

22.2. Horretarako egokituriko tokietan ezin izanen da, inolaz ere, aparkatu.

Abiadura murriztapena oinezkoen etorri handiko lekuetan

23. art. Errei bakar batetik zirkulatzen den kaleetan eta oinezkoen etorria handia den guztietan, baita ikastetxeak diren kaleetan ere, ibilgailuek abiadura egokia eramanen dute eta behar diren neurriak hartuko.

Kamioiak eta autobusak

24. art. 1. Kamioiendako kalean dagoen aparkalekua, ibilgailu larri guztiendako udal aparkalekua izanen da hemendik aurrera, eta gai honen gainean udalak dituen ordenatzen bidez gobernatuko da.

24.2. Debeku da ibilgailu larriak (mota guztietako kamioiak, kabina izan ala ez, eta autobusak) bide publikoan aparkatzea zamalanak egiteko behar den baino denbora gehiago, bidaiariekin nahiz salgaiekin aritu.

Motozikleten zirkulazioa

25. art. 1. Motozikletek ezin izanen dute kategoria gehiagoko ibilgailuez osatutako bi lerroren artean zirkulatu, ezta lerro baten eta espaloiaeren artean ere.

25.2. Debekatua dute, halaber, tupusteko azelerazioek, ihes-hodi trukatuak edo bestelako ez-ohiko inguruabarrek traba egitea.

Bizikletak

26. art. 1. Bizikletak galtzadatik badabiltza, espaloitik ahalik eta hurbilen joanen dira, salbu eta beste ibilgailu batzuekiko erreiak dauden kasuetan. Horrelakoetan, erresebatuak dagoen erreiaaren albokotik joan beharko dute.

26.2. Parke publiko eta oinezkoendako kaleetan seinalaturik dauden tokietatik joan beharko dute eta horrelakorik ez bada, oinezkoek daramaten abiada berean. Nolanahi ere, oinezkoek beti izanen dute lehentasuna.

Zirkulatzeko baimen bereziak

27. art. Erregelamenduz baimenduak baino pisu eta tamaina handiagoko ibilgailuak ezin izanen dira ibili herriko bide publikoetan baina Udalaren baimenik ez badute.

Aitzineko puntuan zehaztu baimenak bidaia bakarrerako edo aldi jakin baterako izan daitezke.

Eskola garraioa

28. art. Herri barnean eskola-garraiorako zerbitzuak egin ahal izateko, udal baimena beharrezkoa da.

29. art. 1. Hiriko eskola-garraioa da, lineaz kanpoko garraio jarraitua, ibilgailu automobil publikoetan edo zerbitzu partikularrekoetan eginga, abiapuntu edo helmuga ikastetxeak izanik, ibilgailuak udalerraren barnean tartekako geraldia egin edota ibiltzen bada.

Erabilera debekatuak bide publikoetan

30. art. Oinezkoen ibiltoki erreserbatuetan eta galtzadetan, nola ibiltarientzat hala jolasean dabilzanentzat arriskurik ekar lezaketen jolas eta jostetak debekatuak daude.

Prozedura

32. art. Ordenantza honen eta, oro har, Trafikoari, Ibilgailu Motordunei eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen xedapenen kontrako arau-hausteak, Udalaren eskumen baldin badira, isuna ezarriz zehatuko ditu alkateak, ordenantza honi erantsitako isunen laukian aurreikusitako zenbatekoekin.

33. art. Zehapen espedienteetan emandako ebazpenek administrazio bideari amaiera emanen diote eta horien aurka administrazioarekiko helegitea paratu ahal izanen da Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Aferen Sailean, eta horretarako bi hilabeteko epea dago. Bestela, nahi bada, gora jotzeko helegitea ere paratzen ahal da, Nafarroako Administrazio Auzitegian, hilabeteko epean zehapena jakinarazten denetik aitzina.

Zehapenen taula

Arau-hauste soila.-Ordenantza honetan ezarritako edozein neurriren kontrako arau-haustea, 30,06 Eurotako isuna ezarriz zehatuko dute udal langileek.

Berrerortzea.-Arau-hauste berean berrerortzeak lehenago ezarritako zehapena bikoiztea dakar.

ZEHAPENEN ERASKINA

Lehenbizikoa.-Olaztiko udal mugapean zirkulazioaren gainean egiten diren arau-hausteak, trafikoa antolatu eta bide publikoak erabiltzeko ordenantzan eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna onesten duen martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilean xedatutakoa betez, ondoko hauek izanen dira, arau-hausteen arabera:

9. art. Jokabidea zirkulazioan; axolati/ausarkeriaz gidatzea

1. atala. Zirkulazioari arrazoirik gabe traba eginez jokatzeari: 18,03 euro.

1. atala. Besteak arriskuan jarritz, kaltetuz edo gogaituz jokatzeari: 36,07 euro.

1. atala. Ondasunetan kalteak sortuz jokatzeari: 66,12 euro.

2. atala. Edozein kalte galarazteko ardura eta arreta gabe gidatzeari: 66,12 euro.

2. atala. Axolagabekeriaren gidatzearen: 150,28 euro.

2. atala. Ausarkeriaz gidatzeari: 300,55 euro.

10. art. Obra eta jarduera debekatuak

2. atala. Zirkulatu, gelditu edo aparkatzea galaraz dezaketen gauzak edo gaiak bideetan bota, utzi edo lagatzea: 36,07 euro.

2. atala. Zirkulatu, gelditu edo aparkatzea arriskutsu bihur dezaketen gauzak edo gaiak bideetan bota, utzi edo lagatzea: 36,07 euro.

2. atala. Bidea edo bertako instalazioak honda ditzaketen gauzak edo gaiak bideetan bota, utzi edo lagatzea: 36,07 euro.

2. atala. Zirkulatu, gelditu edo aparkatzeko baldintza egokiak alda ditzaketen gauzak edo gaiak bideetan bota, utzi edo lagatzea: 36,07 euro.

3. atala. Oztopo edo arriskua sortzea bideetan, lehenbailehen hura desagertzeko behar diren neurriak hartu gabe: 36,07 euro.

3. atala. Oztopo edo arriskua sortzea bideetan, gainerako erabiltzaileak ohar daitezen behar diren neurriak hartu gabe: 36,07 euro.

3. atala. Oztopo edo arriskua sortzea bideetan, zirkulazioa galaraz ez dadin behar diren neurriak hartu gabe: 36,07 euro.

3. atala. Asotsa egin, gasak, gai kutsakorrek edo asaldura elektromagnetikoak bideetan sortzea, arauzko mugetatik goiti: 66,12 euro.

11. art. Gidarien arau orokorrak.

1 atala. Ibilgailuak zein animaliak gidatzea, une oro haiek kontrolatzeko moduan egon gabe: 18,03 euro.

1. atala. Errepidean doazen beste erabiltzaileen hurbiltasunak axolatu gabe gidatzea: 18,03 euro.

2. atala. Ibilgailua gidatzea, norberaren mugimenduak kontrolatzeko askatasunik gabe: 18,03 euro.

2. atala. Ibilgailua gidatzea behar den ikus eremurik izan gabe: 18,03 euro.

2. atala. Ibilgailua gidatzea, hura eramateko une oro behar den arretarik gabe: 18,03 euro.

2. atala. Ibilgailua gidatzea, behar ez bezalako egoneran: 18,03 euro.

2. atala. Ibilgailua gidatzea, gainerako bidaiariak behar bezalako egoneran egon daitezten arduratu gabe: 18,03 euro.

2. atala. Ibilgailua gidatzea, garraiatzen diren gauzak gidatzeari oztopo ez egiteko moduan ezarri gabe: 18,03 euro.

2. atala. Ibilgailua gidatzea, garraiatzen den animalia gidatzeari oztopo ez egiteko moduan ezarri gabe: 18,03 euro.

3. atala. Hotsak hartu edo berriro sortzen dituen aparaturen bati loturiko kasko edo aurikularrak jantzita gidatzea: 60,11 euro.

4. atala. 12 urtetik beheetikoren bat ibilgailuaren aurreko jezarlekuetan eramatea, gailu homologaturik gabe: 90,17 euro.

12. art. Edari alkoholodunak, sorgorkariak eta antzekoak.

1. atala. Ibilgailua gidatzea, odoletan 0,8 gramotik gorako alkohol tasarekin: 120,22 euro.

1. atala. Ibilgailua gidatzea, odoletan 0,9 gramotik gorako alkohol tasarekin: 180,33 euro.

1. atala. Ibilgailua gidatzea, odoletan mila c.c.-ko 1,2 gramotik gorako alkohol tasarekin, 1,6 gramo gainditu gabe: 240,44 euro.

1. atala. Ibilgailua gidatzea, odoletan mila c.c.-ko 1,6 gramotik gorako alkohol tasarekin: 300,55 euro.

2. atala. Alkohol intoxikazioaren maila frogatzeko ezarrita dauden arauzko probei uko egitea: 300,55 euro.

3. atala. Gai kimikoen intoxikazioaren maila frogatzeko ezarrita dauden arauzko probei uko egitea: 300,55 euro.

13. art. Zirkulazioaren norabidea.

Zirkulatzeko bi norabide dituen bide publiko batean galtzadaren ezkerretik ibiltzea, ikus-tarte zabala duen zati batean: 36,07 Euro.

Zirkulatzeko bi norabide dituen bide publiko batean ezkerretik ibiltzea, erabakitakoaren aurkako norabidean, ikus-tarte txikia duen bihurgune edo sestra aldaketa batean: 300,55 Euro.

14. art. Erreien erabilera.

1. atala. Bazterbidean ibiltzea, larrialdiko arrazoirik gabe, horretara beharturik ez dagoen ibilgailu batean: 18,03 euro.

1C atala. Herritik kanpo, eskuinekoa ez den beste errei batean ibiltzea, atzetik duen beste bat oztopatuz: 18,03 euro.

1C atala. Herritik kanpo, eskuinekoa ez den beste errei batean ibiltzea, atzetik duen beste ibilgailu bat oztopatuz: 36,07 euro.

1C atala. Herritik kanpo, eskuinekoa ez den beste errei batean ibiltzea, berez errei hura erabili behar duen ibilgailu batekin, egoerak horretara behartu gabe: 36,07 euro.

1C atala. Herritik kanpo, eskuinekoa ez den beste errei batean ibiltzea, berez errei hura erabili behar duen ibilgailu batekin, atzetik duen beste bat oztopatuz: 66,12 euro.

1D atala. Herri barrenean, norabide berean, zutikako seinalez mugaturik, bi errei dituen galtzadan ibiltzea errei batetik bestera aldatuz, inongo arrazoi frogaturik gabe: 18,03 euro.

15. art. Bazterbidearen erabilera

1. atala. Galtzadan behar baino gehiago sartuz ibiltzea, bazterbidetik ibili behar duen ibilgailua gidatuz: 36,07 euro.

1. atala. Galtzadan behar baino gehiago sartuz ibiltzea, larrialdia dela eta, abiadura txikiagatik bazterbidetik joan behar duenean, zirkulazioan oztopo handiak sortzen dituela: 66,12 euro.

2. atala. Beste ibilgailu baten parean zirkulatzea, horrela joatea biek debekatua izanik: 36,07 euro.

16. art. Zirkulazio norabidearen kasu bereziak.

1. atala. Eskudun agintariak esandakoaz beste bide zati bat erabiltzea: 18,03 euro.

1. atala. Eskudun agintariak esandakoaz beste bide zati bat erabiltzea, erabakitakoaren aurkako norabidean: 120,22 euro.

2. atala. Zenbait ibilgailu eta bide jakin batzuetan zirkulatzeko murriztapen edo mugen aurka egitea: 60,11 euro.

17. art. Babestokiak, oinezkoen babesguneak edo bide erakusleak.

Babestokia, oinezkoen babesgunea edo bide erakuslea ezkerretan ez uztea, zirkulatzeko bi norabide dituen errepidean: 18,03 euro.

19. art. Abiaduraren muga.

1. atala. Ikus-tartearen barrenean eta egon daitekeen edozein oztoporen aurrean ibilgailua gelditzea galarazten dion abiaduran zirkulatzea: 96,18 euro.

20. art. Tarteak eta eska daitekeen abiadura.

1. atala. Bat-bateko arriskurik gabe, abiadura nabarmen jaistea, atzetik datozen ibilgailuekin jotzeko arriskuarekin: 96,18 euro.

2. atala. Beste ibilgailu baten atzetik zirkulatzea, bapatean frenatuz gero, hura jo gabe gelditzea galarazten dion tarte utzi gabe: 36,07 euro.

5. atala. Ibilgailuen artean abiadura lehian aritzea, eskudun agintariak horretarako seinالاتu ez duen bide publiko batean: 150,28 euro.

21. art. Bide lehentasunerako arau orokorrak

1. atala. Biderik ez ematea behar bezala seinaleztaturiko bidegurutze batean: 120,22 euro.

2. atala. Biderik ez ematea bidegurutze batean eskuinetik datozkion ibilgailuei: 96,18 euro.

2A atala. Zoladurarik gabeko bide batean zirkulatuz, zoladura duen beste batetik datorrenari biderik ez ematea: 96,18 euro.

2C atala. Biribilgu batean sartzea, barrenean dauden ibilgailuei biderik eman gabe: 96,18 euro.

22. art. Bide lehentasuna zati estu eta malda handikoetan.

1. atala. Biderik ez ematea seinaleztatu gabeko tarte estu batean lehendabizi sartu den beste ibilgailu bati, harekin gurutzatzea ezinezkoa edo oso zaila izanik: 96,18 euro.

23. art. Bide lehentasuna, gidari, oinezko eta animalien artean.

1A atala. Oinezkoen bide lehentasunari kasurik ez egitea behar bezala seinaleztaturiko pasabidean: 150,28 euro.

1B atala. Beste bide batean sartzeko ibilgailuarekin alde batera egitea, gurutzatzen ari diren oinezkoei bide lehentasuna eman gabe: 120,22 euro.

2. atala. Oinezkoen barruti batean pasatzea, bertatik dabiltzan oinezkoei pasatzen utzi gabe: 120,22 euro.

3A atala. Oinezkoei biderik eman gabe ibilgailuz ibiltzea, jendeak garraio kolektibo bat hartu edo utzi behar duenean, horretarako seinaleztaturiko geralekuan: 120,22 euro.

3B atala. Ibilgailuz ibiltzea, antolaturiko segizio bati biderik eman gabe: 120,22 euro.

4. atala. Animaliaaren bat eramatea, ibilgailuen zati horretako bide lehentasunari kasu egin gabe: 96,18 euro.

24. art. Bide lehentasuna gurutzaguneetan.

1. atala. Beste ibilgailu baten lehentasunari kasu ez egitea behar bezala seinaleztaturiko gurutzagune batean, haren gidariari ibilbidea edo abiadura tupustean aldatzera behartuz: 150,28 euro.

1. atala. Beste ibilgailu baten lehentasunari kasu ez egitea seinaleztatu gabeko gurutzagune batean, haren gidariari ibilbidea edo abiadura tupustean aldatzera behartuz: 120,22 euro.

2. atala. Ibilgailuaz gurutzagune batean sartu eta bertan geldirik geratzea, zeharkako zirkulazioa galarazi edo oztopatuz: 96,18 euro.

2. atala. Oinezkoen pasabide batean ibilgailuaz sartu eta bertan geldirik gelditzea, oinezkoen zirkulazioa galarazi edo oztopatuz: 96,18 euro.

25. art. Bide lehentasuna eta larrialdi zerbitzuetako ibilgailuak.

Bide lehentasunik ez ematea larrialdi zerbitzuko ibilgailu bati horrelako zerbitzu bat ematen ari denean: 210,39 euro.

26. art. Ibilgailuak zirkulazioan sartzea.

Geldirik edo aparkatuta egonda, aldez aurretik gainerako erabiltzaileentzat arriskua sor dezakeela begiratu gabe, zirkulazioan sartzea: 18,03 euro.

Inguruko bide edo eremu batetik, aldez aurretik gainerako erabiltzaileentzat arriskua sor dezakeela begiratu gabe, zirkulazioan sartzea: 18,03 euro.

Geldirik edo aparkatuta egonda, beste ibilgailuei biderik eman gabe, zirkulazioan sartzea: 96,18 euroakoa.

Inguruko bide edo eremu batetik, beste ibilgailuei biderik eman gabe, zirkulazioan sartzea: 96,18 euro.

Zirkulazioan sartzea, egitera doan mugimendua behar bezala seinaleztatu gabe: 18,03 euro.

27. art. Ibilgailuen gidaketa besteek sartu behar duten tartean:

Beste ibilgailuei, ahal den neurrian, zirkulazioan sar daitezten ez uztea: 18,03 euro.

28. art. Bide, galtzada eta erreiz aldatzea.

1. atala. Aldez aurretik eta behar den denboraz atzetik heldu diren beste gidariei jakinarazi gabe, ibilgailuarekin alde batera egitea: 18,03 euro.

1. atala. Aldez aurretik eta behar den denboraz atzetik heldu diren beste gidariei jakinarazi gabe, ibilgailuarekin alde batera egitea: 18,03 euro.

1. atala. Ibilgailua biratzea, kontrako norabidean heldu direnentzat arriskua sortuz, zein abiaduratan eta distantziatara datozen ikusita: 150,28 euro.

1. atala. Norabidea ezkerretara aldatu, behar bezala ikusteko tartea izan gabe: 96,18 euro.

2. atala. Alde batera egitea erreiz aldatzeko, hartu nahi den erreitik datorrenaren lehentasunari kasu egin gabe: 96,18 euro.

29. art. Norabide aldaketak.

Norabide aldaketa egitea, gidariaren asmoa aginduzko seinaleen bidez eta behar adina denboraz adierazi gabe: 96,18 euro.

Norabidea aldaketa egitea, bidean doazen besteentzat arriskua sortuz: 150,28 euro.

Norabide aldaketa egitea, bidean datozenak oztopatuz: 120,22 euro.

30. art. Norabidea aldatzeko debekua.

Norabidea aldatzea, ikus-tarte txikiko zati batean: 120,22 euro.

Norabidea aldatzea, pasonibel batean: 96,18 euro.

Norabidea aldatzea, tunelaren seinalea duen zati batean: 96,18 euro.

Norabidea aldatzea, beste bat aurreratzea debekatua egon eta norabidea aldatzeko baimen espresurik ez dagoen toki batean, behar adinako ikus-tarterik gabe: 150,28 euro.

Norabidea aldatzea, beste bat aurreratzea debekatua egon eta norabidea aldatzeko baimen espresurik ez dagoen toki batean, behar adinako ikus-tartea izanik: 96,18 euro.

31. art. Atzeraka ibiltzea.

1. atala. Atzeraka ibiltzea inongo arrazoirik gabe: 18,03 euro.

1. atala. Atzeraka ibiltzea, egin nahi den maniobrarako aski den denboran baino luzeagoan egitea: 18,03 euro.

2. atala. Atzerako mugimendua poliki ez egitea: 18,03 euro.

2. atala. Atzeraka joatea aginduzko seinaleak egin gabe: 18,03 euro.

2. atala. Atzeraka joatea gainerako erabiltzaileentzat, ikus-tarte, espazio eta denboragatik, arriskurik sortzen ez duela begiratu gabe: 18,03 euro.

33. art. Aurreratze arau orokorrak.

Aurreratzea, Erregelamenduaren aurka: 96,18 euro.

Aurreratzea, gainerako erabiltzaileentzat arriskua sortuz: 120,22 euro.

35. art. Ibilgailu aurreratuarendako arauak.

2. atala. Aurreratze unean, aurreratu dezaten galarazi edota zailtzen duten mugimenduak egitea: 96,18 euro.

38. eta 39. artikulua. Gelditu eta aparkatzeko arauak. Gelditu eta aparkatzeko debekuak.

1. atala. Udalaren garabi zerbitzuak ibilgailua kaletik kentzera behartzen duten geldialdi edo aparkatzeak, leku arriskutsuan egiteagatik edo zirkulazioa larriki oztopatzeagatik: 96,18 euro.

2. atala. Lehenengo paragrafoan jaso gabeko okerreko geldialdiak: 18,03 euro.

3. atala. A) Lehenengo paragrafoan jaso gabeko okerreko aparkatzeak: 22,94 euros.

B) Ibian aparkatzea, gaizki aparkatzeagatiko ixuna gehi agraviaren kostua, gehi alguazilaren lan ordu baten kostua. **2009ko otsailaren 4ko 15. NAOn argitaratua.**

42. art. Argien nahitaezko erabilera.

1. atala. Iluntzetik argi hastea arte arauzko argiak piztu gabe ibiltzea: 96,18 euro.

1. atala. Tunelean edota tunel seinalearen agindupeko bide tarteunean arauzko argiak piztu gabe ibiltzea: 96,18 euro.

1. atala. Hurbilerako argiek itsutzen dutela ibiltzea: 96,18 euro.

2A atala. Egunez motozikletaz ibiltzea arauzko argirik piztu gabe: 18,03 euro.

2B atala. Bihurgarri den edo erreserbatu edota salbuespenez irekita dagoen erreian barrena egunez ibiltzea, ohikoa ez den norabidean, arauzko argiak piztu gabe: 36,07 euro.

43. art. Argia erabiltzeko kasu bereziak.

Arauzko argiak ez erabiltzea meteorologia edo ingurugiro arrazoiengatik ikusmena nabarmen murrizten denean: 36,07 euro.

44. art. Gidariendako ohartarazpenak.

1. atala. Ibilgailuen gidariak ez ohartaraztea, bidearen beste erabiltzaileei, egin gogo dituen maniobrez, argi seinaleez baliatuz edo, bestela, besoaz, arauz ezarritakoaren arabera: 36,07 euro.

3. atala. Arrazoirik gabe edo gehiegikeriaz erabiltzea argi eta hotsen bidezko seinaleak: 36,07 euro.

4. atala. Arauen kontrako kasu edo baldintzetan seinale bereziak egitea: 36,07 euro.

4. atala.4Herrilanak egiteko kamioi eta makinek, edota istripu edo matxura izan duten ibilgailuak garraiatzeko ibilgailuek auto-hori koloreko argi dizdizari edo birakariaren bidez, seinalerik ez egitea arauzko kasu eta baldintzetan: 36,07 euro.

4. atala. Seinale bereziak egiteko gailua muntatu edo erabiltzea, horretarako baimenik izan gabe: 36,07 euro.

45. art. Ateak.

Ibilgailuaren ateak irekirik eramatea: 18,03 euro.

Ibilgailua zeharo geldirik izan gabe ateak irekitzea: 18,03 euro.

Ateak irekitzea edo ibilgailutik jeistea, hori beste erabiltzaileentzat arriskutsu edo trabagarri ote den aurretik begiratu gabe: 18,03 euro.

46. art. Motorra itzaltzea.

Tunel edo leku itxi batean geldirik egonik ibilgailuaren motorra ez itzaltzea: 36,07 euro.

Erregaiz hornitu bitartean ibilgailuaren motorra ez itzaltzea: 36,07 euro.

47. art. Uhala, kaskoa eta segurtasuneko gainerako elementuak.

1. atala. Gidariak nahiz gainerako bidaiariak segurtasun uhala ez erabiltzea erregelamenduan zehazturiko kasu eta baldintzetan: 36,07 euro.

1. atala. Babeserako kaskoa ez erabiltzea erregelamenduan zehazturiko kasu eta baldintzetan, motozikletan edo ziklomotorrean ibilita: 66,12 euro.

49. art. Oinezkoak.

2. atala. Oinezkoentzat berezitako lekurik ez duen errepidean, galtzadaren ezkeraldetik ez ibiltzea: 18,03 euro.

51. art. Sorospenik ez ematea behar edo istripuetan.

1. atala.4Trafiko istripu batean sarturik egon, hura ikusi edo haren berri izan eta laguntzarik ez ematea arrisku edo kalte gehiago galarazi edo, ahal den neurrian, zirkulazioaren segurtasuna bere onera ekartzeko: 96,18 euro.

1. atala. Trafiko istripu batean sarturik egon, hura ikusi edo haren berri izan eta laguntzarik ez ematea gertakizuna argitzeko: 18,03 euro.

2. atala. Istripu edo matxura dela eta, ibilgailuaz edo haren kargarekin galtzada oztopatu eta gidariak, ahalik eta lasterren bidetik kentzeko neurriak ez hartzea: 36,07 euro.

2. atala. Istripu edo matxura dela eta, ibilgailuaz edo haren kargarekin galtzada oztopatu eta gidariak, ahalik eta lasterren bidetik kentzeko neurriak ez hartzea: 36,07 euro.

53. art. Zirkulazio seinaleei kasu ez egitea.

1. atala. Aginduzko seinale bati kasu ez egitea: 18,03 euro.

1. atala. Debekuzko seinale bati kasu ez egitea: 18,03 euro.

1. atala. Arauzko seinale baten mezuaren arabera ez jokatzeari: 18,03 euro.

55. art. Arauzkoak ez diren seinaleak erabiltzea.

3. atala. Legearen xede diren bideetan arauen zehaztasunak betetzen ez dituzten seinaleak erabiltzea: 36,07 euro.

3. atala. Legearen xede diren bideetan arauen zehaztasunak betetzen ez dituzten bide-markak erabiltzea: 36,07 euro.

56. art. Seinaleak kendu, aldatu eta okertzea.

1. atala. Arauz kontrako seinaleak kendu edo aldatzeko agindua ez betetzea: 90,17 euro.

1. atala. Seinaleak bide batean paratzea baimen eta justifikaturiko arrazoirik gabe: 90,17 euro.

2. atala. Seinaleak bide batetik kentzea baimen eta justifikaturiko arrazoirik gabe: 90,17 euro.

2. atala. Bide bateko seinaleak lekuz aldatzea baimen eta justifikaturiko arrazoirik gabe: 90,17 euro.

2. atala. Bide bateko seinaleak gordetzea baimen eta justifikaturiko arrazoirik gabe: 90,17 euro.

2. atala. Bide bateko seinaleak aldatzea baimen eta justifikaturiko arrazoirik gabe: 90,17 euro.

3. atala. Seinaleen edukia aldatzea: 90,17 euro.

3. atala. Seinaleen gainean plakak, irudiak, markak edo ikuspena nahiz haien eraginkortasuna murriz dezaketen bestelakoak paratzea: 66,12 euro.

3. atala. Seinaleen gainean plakak, irudiak, markak edo bidearen erabiltzaileak itsu ditzaketen bestelakoak paratzea: 66,12 euro.

3. atala. Seinaleen gainean plakak, irudiak, markak edo bidearen erabiltzaileak distraitu ditzaketen bestelakoak paratzea: 66,12 euro.

3. atala. Seinaleen gainean plakak, irudiak, markak edo bidearen erabiltzaileak distraitu ditzaketen bestelakoak paratzea: 66,12 euro.

3. atala. Seinaleen inguruan plakak, irudiak, markak edo nahasgarri izan daitezkeen bestelakoak paratzea: 66,11 euro.

3. atala. Seinaleen inguruan plakak, irudiak, markak edo bidearen erabiltzaileak itsu ditzaketen bestelakoak paratzea: 66,12 euro.

3. atala. Seinaleen inguruan plakak, irudiak, markak edo bidearen erabiltzaileak distraitu ditzaketen bestelakoak paratzea: 66,12 euro.

72. art. Arau-haustea egin duen gidaria ibilgailuaren titularrak ez identifikatzea, horren eskaera egiten zaionean.

3. atala. Arau-haustea egin duen gidaria ibilgailuaren titularrak ez identifikatzea, horren eskaera egiten zaionean: 300,55 euro.

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeak arau-hauste larritzat hartzen dituenak oso larriak bilakatuko dira, eta beraz, 300,56 eurotik 601,11 euro bitarteko isuna jaso ahalko dute, edozein arrazoiren kariatz arriskua sortzen bada, trafiko handia dela, bidearen ezaugarriak edo egoera dela, eguratsaren egoera edo ikus-tarte eskasa dela, ibilgailu eta beste erabiltzaile gehiago pilatzen direla, edo arau-haustea egiten den unean kasu larrietarako aurreikusia den arriskua areagotzen duen antzeko beste edozein gorabehera dela.

E R A N S K I N A

Abiadura handiegian joateagatiko zehapenak

Abiadura handiegian joateagatik ezarriko diren zehapenak 50 km/h-ko edo txikiagoko abiadura mugak baino azkarrago ibiltzeagatik (Zirkulazioaren Kodeko 20.II.a artikuluaekin bat egiten du).

Zehapena: arau-hauste larria, 300,55 euro arte eta gidabaimena 3 hilabete arte kentzea (Legeko 65.4 eta 67.1 artikulua).

-Gehienez ere 50 Km/h.

A B I A D U R A ZEHAPENA 30% (*)

57 arte isunik gabe

58tik 62 arte 96,18 125,03

63tik 68 arte 120,22 156,29

69tik 73 arte 150,28 195,36

74tik 78 arte 180,33 234,43

79tik 83 arte 210,39 270,50

84tik 89 arte 240,44 300,55

90etik gora 300,55 300,55

-Gehienez ere 70 Km/h.

A B I A D U R A ZEHAPENA 30% (*)

78 arte isunik gabe

79tik 85 arte 96,18 125,03

86tik 93 arte 120,22 156,29

94tik 100 arte 150,28 195,36

101etik 107 arte 180,33 234,43

108tik 115 arte 210,39 270,50

116tik 123 arte 240,44 300,55

124tik gora 300,55 300,55

-Gehienez ere 90 Km/h.

A B I A D U R A ZEHAPENA 30% (*)

99 arte isunik gabe

100dik 108 arte 96,18 125,03

109tik 119 arte 120,22 156,29

120tik 129 arte 150,28 195,36

130etik 138 arte 180,33 234,43

139tik 148 arte 210,39 270,50

149tik 158 arte 240,44 300,55

149tik gora 300,55 300,55

-Gehienez ere 30 Km/h.

36 arte: isunik gabe.

37tik 62 arte: 96,18 euro.

Gainontzekoa, ikus 50 km/h-ko abiadurari dagozkionak.

-Gehienez ere 40 Km/h.

47 arte: isunik gabe.

48tik 62 arte: 96,18 euro.

Gainontzekoa, ikus 50 km/h-ko abiadurari dagozkionak.

(*) Garraiorako ibilgailuak, B.G.P. 3.500 Kg.koa bada eta 9 plaza baino gehiagokoak badira.

Bigarren.-Zerrenda honetan biltzen ez diren arau-hausteak zehatzeko indarra duen arauteriari jarraikiko zaio.